EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSEO ETA BILDUMAK

## 2018KO ESTATISTIKA-TXOSTENA



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

Argitaraldia: 1.a, 2019ko azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz



# AURKIBIDEA


Aurkezpena 5

Metodologia 6

1. Euskadiko museo-eskaintza: oinarrizko elementuak 8

1.1. Euskadiko museo eta bildumen kokapena 8

1.2. Museo eta bildumen tipologia 9

1.3. Titulartasuna eta figura juridikoa 12

1.4. Kudeaketa mota 13

1.5. Eratutako urtearen araberako antzinatasuna 14

1.6. Lagunen elkarteak 15

2. Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamenduak 17

2.1. Eraikinaren ezaugarriak 17

2.2. Zerbitzuak eta ekipamenduak 19

2.3. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak 21

3. Sarrera 23

3.1. Jendearentzako irekita egoten diren egunak eta sarrera mota 23

3.2. Sarreraren ezaugarri ekonomikoak 25

4. Museoen jarduerak 29

4.1. Museo eta bildumetako bisitariak 29

4.2. Erakusketak eta beste jarduera batzuk 36

4.3. Argitalpenak 37

5. **Museoetako langileak** 40

5.1. Museo eta bildumei atxikitako langileak eta horien lan-harremana 40

5.2. Langileen lanbide-kategoria 43

5.3. Langileen banaketa, sexuaren arabera 45

5.4. Lanaldi mota 46

6. **Datu ekonomikoak** 48

7. **Museo-funtsak** 50

**2018ko adierazle nagusiak** 52

**Eranskinak** 54

1. Eranskina: 2018ko estatistikan parte hartu duten museoak eta bildumak 54

2. Eranskina: Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia 56

Irudien aurkibidea 67

# AURKEZPENA



Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren Museoen Zentroak, bi urtez behin, Euskadiko Museo eta Bildumen estatistika-ikerketa egiten du. Txostenaren xede nagusiak dira: datuak eguneratzea, herritarrei Euskadiko museoen sektoreari buruzko alderdi nagusiak aurkeztea, eta kultur erakunde eta kudeatzaile publikoei zein pribatuei beharrezko informazioa eskaintzea.

Dokumentu honetan 2018ko emaitza nagusiak agertzen dira, eta **EMSIMEn, Euskadiko Museoen Sisteman**, dauden hiru lurralde historikoetako 61 museo eta bildumak hartu dute parte. EMSIME Eusko Jaurlaritzako museoen kudeaketarako sistema informatikoa da.

Emaitza horiek honako dimentsio hauei buruzko datuak ekartzen dituzte:

- Museo-sarearen ezaugarri orokorrak
- Azpiegituren ezaugarriak
- Eskaintzen dituzten zerbitzuak eta erabilgarri dagoen ekipamendua
- Sarbidea
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea
- Museo-erakundeetako langileei buruzko datuak
- Datu ekonomikoak
- Museo-funtsen informazioa

Azterketa honek Euskadiko museo-sektorearen gaur egungo egoeraren irudi orokorra ematen du, eta aukera ematen du museo-azpiegituren ezaugarriak ezagutzeko, eta baita horien irakurketa egiteko ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko museoen eta bildumen arduradunei eta talde teknikoei, txosten hau egiteko eskainitako informazio eta ezagutzarengatik.



# METODOLOGIA

## Parte-hartzea

Estatistika honetan EMSIMEN dauden hiru lurralde historikoetan dauden 63tik 61 museo eta bildumek hartu dute parte; hau da, erantzun-maila ia %97koa da. 1. eranskinean doa 2018an parte hartu duten museo eta bildumen zerrenda.

## Garatu diren edukiak

Txosteneko kapituluak erabilitako galdetegian jasotako aldagaien arabera antolatu dira eta honako hauek dira:

- **Erakundeari buruzko datu orokorrak**: identifikazio-datuak eta izaera, tipologia, titulartasuna eta kudeaketa, sorrera eta irekiera, etab.
- **Azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua**: eraikinaren informazioa, zerbitzuak eta informatizazio maila.
- **Sarrera**: jendaurreko irekitze egunak eta orduak, sarrera motak eta tarifak.
- **Erakundearen jarduera**: bisitariak eta egindako erakusketa, argitalpen eta bestelako jarduerak.
- **Langileak**: langile kopuru orokorra, generoa, lan mota, lan-harremana eta maila.
- **Datu ekonomikoak**: batik bat, finantziazio iturriak.
- **Museoetako funtsak**

2. eranskinean doa ikerketan erabilitako galdera-sorta.

Aipatutako azterketa-aldagai horietaz gain, aintzat hartu diren klasifikazio-aldagaiak, batez ere, museoen tipologia eta lurralde historikoa izan dira. Langileen kasuan kontuan eduki da sexuaren araberako banaketa ere, baina ez bisitarien atalean. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, orohar, genero-ikuspegia txertatzen du bere plangintza, deialdi, dirulaguntza, batzorde, kontratu eta bestelako agirietan, eta txosten honetan hizkuntza inklusiboa erabili da. Hala ere, museo eta bildumek bi urtetik behin bete beharreko galdetegian bisitarien atalean ez dira datuak sexuaren arabera bereizten, eta, ondorioz, ezinezkoa zaigu Euskadiko museo-erakundeetako bisitariak generoaren ikuspegitik aztertzea.

Museo eta bildumen tipologiari dagokionez, UNESCOk ezartzen duen klasifikazio orokorra erabili da oinarri bezala:

- **Arte Ederrak**: antzinatasunetik XIX. mendera arteko artelanak jasotzen ditu: arkitektura, eskultura, pintura, marrazkia, grabatuak, etab.

- **Arte Garaikidea**: batez ere XX. eta XXI. mendeetan egindako artelanak hartzen ditu, argazkigintza eta zinea barne.
- **Museo-Etxea**: pertsonaia baten etxean kokatutako museoa.
- **Arkeologikoa**: indusketa, prospekzio eta arkeologia-aztarnategietatik datozen objektuak jasotzen ditu, eta besteak beste espezialitate hauek hartzen ditu kontuan: numismatika, glyptika, epigrafia, etab.
- **Tokikoa**: jatorrizko kokapenean dagoen historia-ondarea, hala nola, arkeologia-aztarnategiak, monumentuak edo lekuko industria-ondarea jasotzen dituena(interpretazio-zentro arkeologikoak onartzen ditu, betiere bilduman jatorrizko funtsak jasotzen badira).
- **Historikoa**: gertakari, aro historiko edo pertsonaia bati buruzko objektuak biltzen ditu.
- **Natur Zientziak eta Historia Unibertsala**: zientzia hauekin zerikusia duten objektuak ditu: biologia, botanika, geologia, zoologia, antropologia fisikoa, paleontologia, mineralogia, eta ekologia, beste batzuen artean.
- **Zientzia eta Teknologia**: zientzia eta teknikaren historiaren eboluzioaren objektu esanguratsuak jasotzen ditu.
- **Etnografia eta Antropologia**: industria-aurreko garaiko kulturak edo kultura-elementuak biltzen ditu, esate baterako, folklorea, arteak, tradizioak eta ohiturak.
- **Espezializatua**: kultura-ondarearen beste maila baten jaso ezin diren gaietan sakontzen du.
- **Orokorra**: aipatutako kategoria baten baino gehiagotan identifikatu daitekeen museo edo bilduma.
- **Besteak**: aurreko kategorietan sartu ezin diren guztiak.

## Emandako informazioa

Emandako informazioa ez da osoa izan, 63 museo eta bildumetatik bi geratu dira erantzun gabe. Hala ere, eta kasurik gehienetan, galde-sortako item guztiei erantzun zaie. Grafiko edo taula guztietan ageri da erantzun-oinarria; hau da, aldagai bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

## Ikerketaren fitxa teknikoa

| | |
|---|---|
| Metodologia | Norberak betetako inkesta |
| Informazioa eskuratzeko tresna | Galdera itxiez osatutako galdetegia |
| Lortutako azken lagina | 61 museo eta bilduma |
| Informazioa noiz bildu zen | 2019ko urtarrilaren 15etik apirilaren 15era |
| Ikertutako urtea | 2018 |
| Lurralde eremua | Euskal Autonomia Erkidegoa |

# EUSKADIKO MUSEO-ESKAINTZA: OINARRIZKO ELEMENTUAK

1

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen oinarrizko ezaugarriei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen da: kokalekua, tipologia, titulartasuna, kudeaketa-modalitatea, antzinatasuna eta patronaturik edo lagunen elkarterik dagoen.

## 1.1. EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN KOKAPENA

Euskadiko museo-erakundeen ia erdia Gipuzkoako lurralde historikoan dago; lurralde horretan aurki dezakegu eskaintzaren %48a. Bigarren lekuan Bizkaia dago, museoen %35arekin, eta azkenik, Araban azpiegitura horien %16 biltzen da[1].

Hala ere, esanguratsua da nola banatzen diren museo-erakundeak hiru lurraldeetan. Gipuzkoan, lurralde osoan zehar oso sakabanatuta daude, eta bera da museo-erakunde gutxien dituena hiriburuan kontzentratuta, hau da, 31 museo daude 22 udalerritan, eta horietatik 6 hiriburuan. Kontrako kasua da Arabakoa: 10 museoetatik 7 hiriburuan daude. Bizkaian, ordea, egoera orekatuagoa da: 22 erakundeetatik 8 daude hiriburuan eta besteak lurraldean sakabanatuta. Alegia, portzentajeei begira, Gipuzkoako hiriburuak lurraldeko museoen %19 jasotzen du; Arabakoak, berriz, %70. Erdibidean dago Bilbo Bizkaiko museoen %36arekin.

1. Irudia: **Museoak eta bildumen banaketa lurralde historikoaren arabera** (balio absolutuak) 2018




[1] Kasu honetan estatistikak erantzun ez dituzten bi museoak ere gehitu dira, beraz, oinarria 63 museo eta bilduma dira.

2. Irudia: **Museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera**
(balio absolutua eta %) 2018




Oinarria: 63 museo eta bilduma.

## 1.2. MUSEO ETA BILDUMEN TIPOLOGIA

Euskadiko museo-eskaintzan nabarmentzekoak dira kultur ondarearen arlo zehatz batzuetan espezializatutako museo eta bildumak, Euskadiko museo-erakundeen tipologiaren laurden bat direlako ia-ia (%23). Halaber, aipatzekoak dira zientziarekin eta teknologiarekin lotutako azpiegiturak (ia %15), alegia, zientziaren eta teknikaren bilakaeraren adierazgarri diren objektuak biltzen dituztenak, eta baita arte ederretako museoak eta bildumak ere (%10 inguru). Aldiz, museo-etxeak eta arte garaikideko museoak ez daude hain zabalduta Euskadiko museo-sarean.

3. Irudia: **Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Museo eta bilduma bakoitzaren tipologia aztertuta bere kokalekuaren arabera, Gipuzkoan garrantzirik handiena izaera espezializatuko (%30) eta zientzia eta teknologiako (%20) azpiegiturek dute, eta gehienetan kokatzen diren udalerriko edo eskualdeko jarduera ekonomiko nagusiarekin lotuta daude (burdingintza, makina-erreminta, armagintza, etab.). Bestalde, Araban, arte ederrei eta arkeologiari eskainitako museo-erakundeak nabarmentzen dira; eta Bizkaiari dagokionez, nagusi dira arte ederrei eskainitako museo eta bildumak (%19).

4. Irudia: **Museoak eta bildumak, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

1. Taula: **Museoak eta bildumak, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera** (%) 2018

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Balio absolutua | % | Balio absolutua | % | Balio absolutua | % |
| Espezializatua | 2 | 20 | 3 | 14 | 9 | 30 |
| Arte Ederrak | 2 | 20 | 4 | 19 | 0 | 0 |
| Arkeologikoa | 2 | 20 | 1 | 5 | 2 | 7 |
| Natur Zientziak eta Historia Unibertsala | 1 | 10 | 1 | 5 | 2 | 7 |
| Etnografia eta Antropologia | 1 | 10 | 1 | 5 | 3 | 10 |
| Arte Garaikidea | 1 | 10 | - | - | - | - |
| Tokikoa | - | - | 3 | 14 | 2 | 7 |
| Zientzia eta Teknologia | - | - | 3 | 14 | 6 | 20 |
| Historikoa | - | - | 3 | 14 | 1 | 3 |
| Museo-Etxea | - | - | - | - | 1 | 3 |
| Orokorra | - | - | 1 | 5 | 3 | 10 |
| Bestelakoak | 1 | 10 | 1 | 5 | 1 | 3 |

## 1.3. TITULARTASUNA ETA FIGURA JURIDIKOA

Euskadiko 61 museo-erakundeetatik 36, hau da %59, titulartasun publikokoak dira; 22 (%36), aldiz, titulartasun pribatukoak. Gainerako 3ren (%5) titulartasuna mistoa da.

5. Irudia: **Museoen eta bildumen titulartasuna** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Toki-administrazioak dauka titulartasun publikoaren %81a: 36 museo eta erakundeetatik 15 (%42) aldundienak dira eta 14 (%39) udalenak. Autonomia Erkidegoko Administrazioaren nahiz beste erakunde batzuen (besteak beste: enpresa publikoak, fundazio publikoak eta unibertsitateak) garrantzia askoz txikiagoa da (%19).

6. Irudia: **Titulartasun publikoko museo eta bildumen figura juridikoa** (%) 2018




Oinarria: 36 museo eta bilduma.

Titulartasuna soil-soilik erakunde pribatuen esku duten 22 museo eta bildumen artean, figura juridiko nagusia erakunde publiko eta pribatuen partaidetza duten fundazioak dira (%50). Hala ere, beste figura batzuk ere badaude, adibidez, elkarteak eta elizako figurak.

7. Irudia: **Titulartasun pribatuko museoen eta bildumen figura juridikoa** (%) 2018




Oinarria: 22 museo eta bilduma.

## 1.4. KUDEAKETA MOTA

Museo-erakundeen titulartasunarekin gertatzen denari kontrajarrita, kudeaketa mota aztertzerakoan, nagusi da kudeaketa pribatuaren garrantzia; zehazki, kasuen %48a da halakoa. Neurri txikiagoan, kudeaketa erakunde publikoek egiten dute (%41), eta erakunde mistoek museoen eta bildumen %11 soilik kudeatzen dute.

8. Irudia: **Museoak eta bildumak kudeatzen dituzten erakundeak** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Kudeaketa pribatuko museo eta bildumen kasuan, neurri handi batean (%48) kudeaketa horren arduradunak fundazioak dira (horien patronatuetan erakunde publikoek edo/eta pribatuek har dezakete parte). Kudeaketa hori egiten duten beste figura juridiko batzuek adierazgarritasun txikiagoa dute; halakoak dira, adibidez, sozietateak, elkarteak eta elizako erakundeak.

9. Irudia: **Museoen eta bildumen erakunde kudeatzaile pribatuak** (%) 2018




Oinarria: 29 museo eta bilduma.

Kudeaketa publikoko Euskadiko museo eta bildumen artean, kudeatzaile nagusi gisa toki-administrazioa nabarmentzen da. Zeregin hori gehienbat udalen, aldundien eta bestelako erakunde batzuen bitartez egiten da.

## 1.5. ERATUTAKO URTEAREN ARABERAKO ANTZINATASUNA

Sortze-urtea kontuan hartuta, museo eta bilduma gehienak (%49) XX. mendeko bigarren erdialdean sortu ziren, %34 azken 18 urtetakoak dira eta oso gutxi dira (%13) 50eko hamarkada baino lehenago sortu zirenak.

Jendearentzat irekiera-urtea aintzat hartuta, aldiz, XXI. mendean irekitakoa da museoen eta bildumen %46a. Horiek, batez beste, 28 urteko antzinatasuna dute.

10. Irudia: **Museoen eta bildumen antzinatasuna** (sortze- eta irekiera-urtearen arabera) (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

## 1.6. LAGUN-ELKARTEAK

Aztertutako museo-eskaintza osotik, %31k, hau da, 19 museo eta bildumek dute lagunen elkartearen babes-formula. Titulartasunaren arabera, publikoen eta pribatuen arteko datuak nahiko parekatuta daude: 8 dira publikoak (toki-administrazioarenak) eta 9 pribatuak (fundazioak eta elkartea). Gainerakoak titulartasun mistoa dute.

11. Irudia: **Lagunen elkartea duten edota ez duten museoak eta bildumak** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Museo eta bilduma mota kontuan hartuta, lagunen elkartearen formula batez ere zientzia eta teknologiako museo eta bildumetan (5), eta erakunde espezializatuetan (5) ematen da; arte ederretako museo eta bildumetara (3) eta museo eta bilduma orokorretara(2) ere hedatzen da.

12. Irudia: **Lagunen eta elkartea duten museoak eta bildumak, tipologiaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 19 museo eta bilduma.

Lurralde historikoaren arabera, lagunen elkarteen presentziarik handiena Bizkaiko museo-sarean dago (%44,4). Bigarren lekuan Gipuzkoa (%38,9), eta hirugarren Araba (%16,7).

13. Irudia: **Lagunen elkartea duten museoak eta bildumak, lurralde historikoen arabera** (%) 2018




Oinarria: 19 museo eta bilduma.

# AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Kapitulu honetan museoen eta bildumen eraikin, ekipamendu eta zerbitzuen ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Aldi berean, museo-erakundeek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak nola erabiltzen dituzten nabarmentzen da.

## 2.1. ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Batez beste, Euskadiko museo-azpiegituren antzinatasuna 186 urtekoa da. Oreka dago 1900 baino lehenago egindako eraikinetan dauden museo eta bildumen (%41) eta 1951tik aurrera egindako eraikinetan daudenen artean (%41).

14. Irudia: **Museo eta bildumen eraikinen eraikuntza urtea** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Galderari erantzun dioten 57 erakundeetatik azken urteetan Euskadiko museo eta bilduma gehienak eraberritu eta/edo birgaitu direla esan dezakegu: zehazki, %84a eraberritu da 2000. urtetik aurrera. Datu hori ez da aldatu azken urteetan.

15. Irudia: **Museoak eta bildumak eraberritu ziren azken urtea** (%) 2018




Oinarria: 57 museo eta bilduma.

Orokorrean, Euskadiko museoak eta bildumak jatorrian beste erabilera batzuetarako egindako eraikinetan daude, eta eraikin horiek museoak jartzeko egokitu dira. Hala gertatzen da kasuen %69an. %20a soilik dago helburu horretarako egindako eraikin batean, eta eraikinen %11 bi aukeretarako eraiki zen.

16. Irudia: **Museoak eta bildumak, eraikin motaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Euskadiko museoek 189.724 m$^2$-ko azalera hartzen dute. Horrela, Euskadin 1.000 biztanleko museo-azalera 27,85 m$^2$ da.

2. Taula: **Museoen eta bildumen azalera erabilgarria, tipologiaren arabera**
(balio absolutua, $m^2$) 2018

| Tipologia | Azalera erabilgarria $m^2$ |
|---|---|
| Arte Garaikidea | 13.500 |
| Arte Ederrak | 42.729 |
| Zientzia eta Teknologia | 54.108 |
| Orokorra | 18.988 |
| Bestelakoak | 7.300 |
| Espezializatua | 28.681 |
| Tokikoa | 9.744 |
| Historikoa | 5.151 |
| Arkeologikoa | 933,4 |
| Museo-Etxea | 826 |
| Etnografia eta Antropologia | 2.660 |
| Natur Zientziak eta Historia Unibertsala | 1.370 |
| **GUZTIRA** | **189.724** |

## 2.2. ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Nabarmentzekoa da Euskadiko museoek eta bildumek eskaintzen dituzten zerbitzu eta ekipamenduen aniztasuna. Batez ere erakusketa iraunkorrari buruzko informazioaren eskuragarritasuna azpimarratu nahi dugu. Zerbitzu hori aztertutako museo-erakunde ia guztiek eskaintzen dute. Halaber, nabarmentzekoa da eskuragarri daudela bisita gidatuak (%97k eskaintzen ditu) eta bestelako informazioa, hala nola, liburuxkak edo esku-orriak (%87). Beste zerbitzuak neurri txikiagoan eskaintzen dira: ingurumen-kontrola (%41) edo gidak euskarri elektronikoetan (%38).

3. Taula: **Museoak eta bildumak, zerbitzu eta ekipamendu baliabideen arabera** (balio absolutua eta %) 2018

| Zerbitzuak | Balio absolutua | % |
|---|---|---|
| Erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa | 60 | 98,4 |
| Bisita gidatua | 59 | 96,7 |
| Bestelako informazioa (eskuorriak, etab.) | 53 | 86,9 |
| Desgaitasuna duten pertsonentzako informazioa eskuragarri | 33 | 54,1 |
| Hirugarrenei espazioak alokatzea | 32 | 52,5 |
| Ingurumen-kontrola | 25 | 41,0 |
| Gidak euskarri elektronikoan | 23 | 37,7 |

| Ekipamenduak | Balio absolutua | % |
|---|---|---|
| Aretoko panelak, eskuorriak, etab. | 57 | 93,4 |
| Desgaitasuna duten pertsonentzako sarbidea | 52 | 85,2 |
| Denda/ Liburudenda | 47 | 77,0 |
| Jarduera didaktikoetarako lekua | 43 | 70,5 |
| Liburutegia | 41 | 67,2 |
| Ikus-entzunezko gela | 38 | 62,3 |
| Ekitaldi-aretoa | 32 | 52,5 |
| Ikertzaileentzako aretoa | 27 | 44,3 |
| Aparkaleku publikoa | 22 | 36,1 |
| Zeharberritzeko tailerra | 19 | 31,1 |
| Kafetegia/Jatetxea | 14 | 23,0 |
| Argazkigintza-laborategia | 7 | 11,5 |

Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Ekipamenduari dagokionez, ohikoenak dira, alde batetik, aretoetan egoten den informazioa –panelak eta bestelako informazio orriak– (%93) eta desgaitasun bat dutenentzako sarbidea (%85). Gutxien dauden ekipamenduak argazkigintzako laboratategiak (%11) eta ekipamendu osagarriak –jatetxeak eta kafetegiak- dira (%23).

## 2.3. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskadiko museoetan eta bildumetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek presentzia handia dute, gehienek ekipamendu informatikoak eta web orriak dituztelako.

17. Irudia: **Museoak eta bildumak, ordenagailurik edo webgunerik duten zehaztuta** (%) 2018




Tipologiaren arabera, web orria zabalkunderako/komunikaziorako %100ean oraindik hartu ez duten museoak etnografia eta antropologiari buruzkoak, historikoak eta zientzia eta teknologikoak dira. Gainera, esanguratsua da ordenagailua duten eta webgunea duten museo kopurua bera dela, beraz, uler dezakegu erakundeak ordenagailua badu, webgunea ere baduela.

18. Irudia: **Museo eta bildumetan web orria izatea, tipologiaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Ekipamendu informatikoari dagokionez, bereziki nabarmendu behar da administrazio-zereginetan laguntzeko erabiltzen dela (%95), baina bisitariei informazioa emateko eta Internetera sartzeko baliabide gisa ere erabiltzen da (%81). Datu-baseetan funtsak prozesatzeko ere erabiltzen dira, baina neurri txikiagoan (%71).

19. Irudia: **Ordenagailuaren erabilera museo eta bildumentan** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Web orrien helburu nagusia bisitariei oinarrizko informazioa ematea da (%100): helbidea, programazioa, orduak, tarifak, eta abar. Halaber, bisitaria museoarekin berarekin komunikatzeko bide gisa ezartzen dira, bai museo-erakundeak egiten dituen hezkuntza-jarduerak interesdunei eskaintzeko gune gisa ere.

20. Irudia: **Museoei eta bildumei buruzko web orrien helburuak** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

# SARRERA

Kapitulu honetan aztertuko da zer irekiera-modalitate duten Euskadiko museoek; baita sarrera mota eta sartzeko aplikatzen diren tarifak ere.

## 3.1. JENDEARENTZAT IREKITZEKO MODALITATEA ETA SARRERA MOTA

Orokorrean, azterketan parte hartu duten Euskadiko museo eta bildumek euren ateak etengabe irekitzen dituzte, hau da, urteko hilabete guztietan, asteko egunen batean izan ezik (%92). Gainera, ia-ia %80k jendearentzat urtean 300 egunetan baino gehiagotan irekitzen du.

21. Irudia: **Museoak eta bildumak, jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera** (%) 2018




Oinarria: 60 museo eta bilduma.

22. Irudia: **Museoak eta bildumak, urtean irekitako egun kopuruaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 58 museo eta bilduma.

Bi kasutan izan ezik, aztertutako Euskadiko museo-espazio guztiek euren instalazioetara mugarik gabeko sarrera eskaintzen dute.

23. Irudia: **Museoetan eta bildumetan sartzeko moduak** (%) 2018




24. Irudia: **Museo eta bildumak ikusteko aldez aurretiko eskaera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Aldiz, museo eta bilduma kopuru garrantzitsu batera sartzeko, aurretiaz eskaria egin behar da. Egoera hori kasuen %39an gertatzen da. Eskakizun hori are zorrotzagoa da taldean etorriz gero (%65), eta neurri txikiagoan gainerako kasuetan (%35).

## 3.2. SARRERAREN EZAUGARRI EKONOMIKOAK

Museo gehienetara sartzeko tarifa bat ordaindu behar da; %27 baino ez dira doan.

25. Irudia: **Museoen eta bildumen sarrera mota** (%) 2018




Oinarria: 60 museo eta bilduma.

Sarrera kobratzen ez duten museo eta bildumen artean %69 publikoak dira (toki-administrazioak) eta %31 pribatuak. Hala ere, esan behar da, tarifa kobratzen dutenak ere gehienak publikoak direla, baina portzentaje txikiagoan (%57).

26. Irudia: **Museoen eta bildumen tarifa mota, titulartasunaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 60 museo eta bilduma.

Doako tarifa bakarrik duten museo gehienak Araba eta Bizkaia artean banatzen dira, hurrenez hurren, %44 eta %37 batekin. Urrutitik jarraitzen die Gipuzkoak, azpiegituren %19 bakarrik eskaintzen baitu doako sarrera.

27. Irudia: **Doako tarifa bakarrik duten museo eta bildumak, lurralde historikoaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 16 museo eta bilduma.

Tarifa duten hamar museo-erakundetik 9 baino gehiagok tarifa osoak eskaintzen dituzte, hau da, oinarrizko tarifa, aldi baterako erakusketak sartu gabe, horiek berariazko tarifak baitituzte. Gainerakoek (%7) ez dute zehaztu museora sartzeko tarifa mota. Museo eta bildumen erdiak baino gehiagok (%54) 2€ eta 5€ arteko sarrerak kobratzen dituzte, eta %5ak baino besterik ez 10€ baino gehiago.

28. Irudia: **Tarifa osoa duten museoak eta bildumak sarrera-prezioaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 44 museo eta bilduma.

Era berean, sarrera kobratzen duten museo eta bildumen artean, %93k hainbat tarifa mota bereizten ditu bisitarien ezaugarrien arabera.

29. Irudia: **Sarrera ordaindua duten museoen eta bildumen tarifa mota** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Agerian utzi nahi dira talde jakin batzuei eskaintzen zaizkien tarifa murriztuak edo doako tarifak. Sarrera ordaindua duten 44 museo eta bildumetatik 39k eskaintzen dute tarifa murriztua, zeinak, gehienbat, taldeei (%95), ikasleei (%82) eta hirugarren adineko pertsonei (%74) eskaintzen zaizkie.

30. Irudia: **Museoak eta bildumak, tarifa murriztuak balia ditzaketen taldeen arabera** (%) 2018




Oinarria: 39 museo eta bilduma (erantzun anitza).

44 museo eta bildumetatik 38k eskaintzen dituzte doako tarifak, eta onuradun nagusiak haurrak izaten dira, kasuen %87an. Gainera, tarifa osoa duten museo-erakundeen %41k gutxienez astean behin doako egunak eskaintzen dituzte.

31. Irudia: **Museoak eta bildumak, doako sarrerak balia ditzaketen taldeen arabera** (%) 2018




Oinarria: 38 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Azkenik, Euskadiko museo-sarean gutxien eskaintzen diren tarifa motak pase bereziak dira, 44 museo eta bildumetatik 29k eskaintzen dute. Baimen berezi horiek, batez ere, bonuak eta txartelak dira.

Kapitulu honetan Euskadiko museo eta bildumen bisitari-kopurua, erakusketak, argitalpenak eta erakunde horiek sustatzen dituzten beste jarduera batzuk aztertuko ditugu.

## 4.1. MUSEO ETA BILDUMEK IZANDAKO BISITARIAK

Eskuragarri dagoen informazioa oinarri hartuta, 2018an guztira 3.175.103 lagunek bisitatu zituzten Euskadiko museo-espazioak, 2016an baino 178.587 gehiago.

32. Irudia: **Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera** (bisitarien ehunekoa eta balio absolutuak) 2018




Bisitariak lurralde historikoaren arabera nola banatu diren aztertuta, esan behar da bisitari kopuru gehiena Bizkaian egon dela, Euskadiko museo kopururik handiena izan ez arren: Euskadiko museoetara joaten diren bisitarien ia %60 hartzen du lurralde historiko horrek; Gipuzkoak, berriz, %33. Hala ere, aipagarria da Bizkaiak duen 1.854.564 bisitaritik 1.265.756 Guggenheim Museoko bisitariak direla, eta 237.704 Arte Ederretako Museokoak. Beraz, 350.000 bisitari inguru banatzen dira beste museoen artean.

Gipuzkoaren kasuan, egia da bisitarien erdia baino gehiago Donostian batzen dela (672.660 bisitari), hiriburuak dituen sei museoetan banatuta dauden arren.

33. Irudia: **Museo eta bildumetako bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera** (balio absolutuak) 2018




Bisitariak museo-tipologiaren arabera aztertuz gero, bisitarien ehunekorik handiena arte ederretako museotan ikusten da, hau da, bisitarien %49,83 (berriz ere Guggenheim Museoaren eraginez). Alde nabarmenarekin doaz atzetik museo eta bilduma orokorrak (%15,5) eta zientzia eta teknologiari buruzkoak (%9,69). Bisitari-bolumenik txikiena duten museo-espazioak museo-etxeak dira.

4. Taula: **Museo eta bildumetako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera**
(balio absolutua eta %) 2018

| Tipologia | Bisitari kopurua | Guztizkoaren gaineko %-a |
|---|---|---|
| Arte Ederrak | 1.582.174 | 49,83 |
| Orokorrak | 491.993 | 15,50 |
| Zientzia eta Teknologia | 307.512 | 9,69 |
| Espezializatuak | 259.275 | 8,17 |
| Bestelakoak | 120.821 | 3,81 |
| Arte Garaikidea | 96.372 | 3,04 |
| Tokikoa | 94.993 | 2,99 |
| Historikoak | 88.497 | 2,79 |
| Arkeologikoak | 67.443 | 2,12 |
| Etnografia eta Antropologia | 40.185 | 1,27 |
| Natur Zientziak eta Historia Unibertsala | 23.255 | 0,73 |
| Museo-Etxea | 2.583 | 0,08 |
| **GUZTIRA** | **3.175.103** | **100** |

Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Lurralde historiko bakoitzeko bisitari kopuruaren azterketa zehatzagoak honako emaitza hauek erakusten ditu:

- **Araban**, hamar bisitaritik ia lauk arte garaikideko museoan egon dira, hau da, Artium, Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan.
- **Bizkaian**, bisitari gehienak, %82 baino gehiago (10 bisitaritik 8), arte ederretako museoen inguruan biltzen dira, hurrenez hurren, Guggenheim Museoan eta Bilboko Arte Ederren Museoan.
- **Gipuzkoan** oreka handiagoa dago tipologien artean, baina bisita gehienak museo eta bilduma orokorrek eta zientzia eta teknologiari buruzkoek jasotzen dituzte.

5. Taula: **Museo eta bildumetako bisitari kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera** (balio absolutua) 2018

| Tipologia | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Arte Ederrak | 55.323 | 1.526.851 | - | 1.582.174 |
| Orokorrak | - | 14.448 | 477.545 | 491.993 |
| Zientzia eta Teknologia | - | 29.924 | 277.588 | 307.512 |
| Espezializatuak | 16.519 | 71.547 | 171.209 | 259.275 |
| Bestelakoak | 54.111 | 51.710 | 15.000 | 120.821 |
| Arte Garaikidea | 96.372 | - | - | 96.372 |
| Tokikoa | - | 51.805 | 43.188 | 94.993 |
| Historikoak | - | 83.991 | 4.506 | 88.497 |
| Arkeologikoak | 17.232 | 17.234 | 32.882 | 67.443 |
| Etnografia eta Antropologia | 14.232 | 4.699 | 21.254 | 40.185 |
| Natur Zientziak eta Historia Unibertsala | 15.770 | 2.355 | 5.130 | 23.255 |
| Museo-Etxea | - | - | 2.583 | 2.583 |
| **GUZTIRA** | **269.559** | **1.854.564** | **1.050.885** | **3.175.103** |

Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Bestalde, sarrera motak aintzat hartzen baditugu, oso parekatuta daude hiru tarifa motak: tarifa osoko bisitariak, tarifa murriztuko bisitariak eta doako tarifako bisitariak.

34. Irudia: **Bisitarien banaketa tarifa motaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Ia-ia museoen %87n izan dira bisitari atzerritarrak (datuak 2016koekin bat datoz). Beste herrialde batzuetako 1.274.632 bisitari egon dira, 2016an baino 209.784 gehiago. Beraz, 2018an atzerriko bisitarien %19,7 igoera egon da. Beste modu batera esanda, museotara joan diren pertsona guztien %40a beste herrialde batzuetakoa izan da, 2016an baino 5 puntu gehiago.

35. Irudia: **Bisitarien banaketa, nazionalitatearen arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Beste herrialde batzuetako bisitarien kopuruak lurralde historikoaren arabera aztertuz gero, 2018an atzerritarren kopururik handiena Bizkaiak hartu du, hain zuzen ere %80. Lurralde historiko horretako museoak bisitatu dituztenen artean %55 izan dira atzerritarrak. Aurkako muturrean dago, berriz, Araba (%12).

36. Irudia: **Museo eta bildumetako atzerriko bisitari-kopurua lurralde historikoaren arabera** (balio absolutuak) 2018




37. Irudia: **Atzerriko bisitariak izan dituzten Euskadiko museoak eta bildumak, lurralde historiakoaren arabera** (balio absolutua eta %) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Arte ederretako bildumetan biltzen da bisitarien ehunekorik handiena, zehazki %76,6. Horien atzetik doaz, distantzia handira, gai orokorretako museo-erakundeak (%11), espezializatuak (%4,5) eta historikoak (%3,6).

38. Irudia: **Museo eta bildumetan izandako bisitari atzerritarren kopurua, tipologiaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Azkenik, Euskadiko museo-sareko erakundeen %31k bakarrik jaso dituzte taldeen bisitak. Gehienek, %54k, ez dute egin horrelako bisitarik.

39. Irudia: **Museo eta bildumak taldeen bisiten arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

## 4.2. ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Ikerketan parte hartu duten hamar museo eta bildumatatik zazpik 2018an inauguratu ziren aldi baterako erakusketak egin dituzte. Hala ere, museo-erakunde bakoitzaren tipologiaren arabera diferentzia nabarmenak ikusten dira.

Arte garaikideko eta arte ederretako museoak, orokorrak, tokikoak eta izaera historikoko museo eta bildumen kasuan, aldi baterako erakusketak egitea jarduera ohikoa da. Beste alde batetik, museo-etxe, etnografia eta antropologia edo Natur zientziak eta historia unibertsaleko museo eta bildumen kasuan, halako erakusketak ez dira hain orokorrak.

40. Irudia: **Museo eta bildumetan egindako aldi baterako erakusketak, tipologiaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Euskadiko museo eta bildumen %93k beren museo-jarduera osatzeko beste jarduera batzuk egiten ditu, eta ekimen osagarri horien artean hezkuntzakoak nabarmentzen dira. Museo-sarean %93,44k egiten ditu halakoak, eta %65,5k, berriz, ikastaroak eta tailerrak, eta baita hitzaldiak ere.

41. Irudia: **Museoek eta bildumek egindako beste jarduera batzuk** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Hezkuntza-jarduerak eskaintzen dituzten museo eta bildumen artean, guztiek egiten dituzte haurrentzako ekimenak. Bigarren mailan, %80k baino gehiagok familientzako jarduerak antolatzen ditu; eta ia %60k adinduentzako ekimenak. Hala ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta gutxiengo etnikoentzat egiten dira jarduera gutxien.

42. Irudia: **Museo eta bildumetan egindako hezkuntza-jarduerak publikoaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 57 museo eta bilduma (erantzun anitza).

## 4.3. ARGITALPENAK

Aztertutako Euskadiko museo-sarearen %70ak baino gehiagok dio 2018an argitalpenen bat egin duela.

43. Irudia: **Museo eta bildumen argitalpenak** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Dibulgazio-materialak dira Euskadiko museo eta bildumek argitaratutako eduki nagusiak (%73). Neurri txikiagoan nabarmentzen dira argitalpen didaktikoak eta gidak, horien atzetik doaz aldizkako argitalpenak, eta azken tokian zientzia-katalogoak (%29).

44. Irudia: **Museoek eta bildumek egindako argitalpenak materialaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 41 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Argitalpenak egiteko gehien erabiltzen den euskarria papera da, aztertutako erakundeen %88k dionez. Bigarren tokian, eta museo-erakundeen erdia baino apur bat gutxiagok, argitalpenak egiteko web orrian eskuragarri dagoen euskarri elektronikoa nabarmentzen dute. Azkenik, euskarri elektronikoan egindako argitalpenak (%37).

45. Irudia: **Museo eta bildumek argitaratutako lanetan erabilitako euskarria** (%) 2018




Oinarria: 41 museo eta bilduma (erantzun anitza).

Euskadiko museo-sareko erakundeek egindako argitalpen gehienak euskaraz eta gaztelaniaz dira. Ingelesez eta frantsesez argitaratuta daudenak erdia baino gutxiago dira, eta Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuetan, batez ere alemanieraz, argitaratzen dena oso marjinala da (%7).

46. Irudia: **Museoek eta bildumek 2018an egindako argitalpenak hizkuntzaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 41 museo eta bilduma (erantzun anitza).

# MUSEOETAKO LANGILEAK

5

Kapitulu honetan Euskadiko museo-sarearen zerbitzura dauden langileei buruzko oinarrizko informazioa biltzen da. Horretarako hainbat adierazle aztertzen da lan-harremanari, lanbide-kategoriari, generoari eta lanaldi motari dagokionez.

## 5.1. MUSEO ETA BILDUMEI ATXIKITAKO LANGILEAK ETA HORIEN LAN-HARREMANA

Aztertutako 61 museo eta bildumak oinarri hartuta, 2018an Euskadin museo-jardueretan 699 pertsona ari ziren lanean. 2016an 639 langile zituzten museoek, beraz %9ko igoera egon da azken bi urteotan. Horrela, esan daiteke museo-erakundeek batez beste, 11 laguneko plantilla dutela, betiere, aintzat hartuta, langileen erdia zazpi erakunderen artean banatzen dela: Guggenheim Museoa, Burdinbidearen Euskal Museoa, Bilboko Arte Ederretako Museoa, San Telmo Museoa, Euskal Herriko Meatzaritza Museoa, Aquarium eta Topic (langile ordaindu eta boluntario kopuruaren arabera ordenatuta). Zazpi erakunde horiek 335 langile biltzen dituzte, hau da, museo eta bildumetako langileen ia erdia (%48). Beste %52ak, alegia, 364 langile, 52 erakundetan egiten du lan.

47. Irudia: **Museo eta bildumak langile-kopuruaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

48. Irudia: **Langile gehien eta gutxien dituzten museo eta bildumak**
(balio absolutuak) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Ordainsaria jasotzen duten 580 langileak bakarrik hartzen baditugu kontuan, egoera honako hau da: 5 eta 25 langile dituzten museoen portzentajea mantentzen da, %6 igotzen da 5 langile baino gutxiago dituztenak, eta portzentaje berean jaisten da 25 langile baino gehiago duten museo kopurua.

49. Irudia: **Museo eta bildumak ordainsaria jasotzen duten langile-kopuruaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Horrela, 9 museo-erakunde hauetan batzen dira ordainsaria jasotzen duten langileen erdia baino gehiago (%57).

50. Irudia: **Langile gehien dituzten museo eta bildumak** (balio absolutuak) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Hala ere, aipatu behar da museo-sareko plantilla osatzen duten pertsonen artean boluntarioen presentzia nabarmena den arren (%9), ordainsaria jasotzen duten langileak direla gehien plantilla osoan, eta batez ere, lanpostu iraunkorra duten pertsonak (%74), aldi baterako lanaren aldean (%15).

51. Irudia: **Museo eta bildumetara atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

## 5.2. LANGILEEN LANBIDE-KATEGORIA

699 langileetatik, %67k museoko jardueren kudeaketari lotutako lanpostuak betetzen ditu; %33, berriz, laguntza-postuei lotutako langileak eta zeharkakoak dira. Horien artean daude mantentze-lanetarako langileak, garbitzaileak eta segurtasun-langileak.

52. Irudia: **Museo eta bildumei atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera** (balio absolutuak) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

53. Irudia: **Museo eta bildumei atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

- Teknikariak dira gainerako lanbide-kategorien gainetik nabarmentzen direnak, hau da, museo-jardueraren kudeaketari lotutako langileen erdia baino apur bat gehiago (%55). Horiek dira espezializatutako profesionalak: kontserbazioko eta zaharberrikuntzako langileak, gidariak, etab.
- Atzetik datoz administrazioko langileak, enplegatutako %35 ingururekin.

54. Irudia: **Laguntza-postuei lotutako langileak eta zeharkakoak** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Bestalde, laguntzako jarduerei eta zeharkakoei lotutako enpleguak, hau da, mantentze-lanetarako langileak, garbitzaileak eta zaintzako/segurtasuneko langileak, museo eta bildumetako enplegu guztiaren %35 baino zertxobait gehiago dira, baina gehienetan azpikontratatutako zerbitzuak izaten dira. Bigarren talde horren barruan nabarmentzekoak dira "Beste langile batzuk" izendapenaren barruko langileak.

Lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera museo eta bildumetara atxikitako langileen banaketaren azterketak zenbait alde nabarmendu ditu.

6. Taula: **Museo eta bildumei atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera** (% horizontala) 2018

| Lanbide-kategoria | Ordaindua/ lanpostu iraunkorra | Ordaindua/ aldi baterako lanpostua | Ordaindu gabea | Boluntarioak |
|---|---|---|---|---|
| Zuzendaria | %80 | %7 | %13 | %0 |
| Langile espezializatuak | %63 | %12 | %2 | %23 |
| Administrazioko langileak | %83 | %7 | %2 | %8 |
| Mantentzen lanetarako langileak eta garbitzaileak | %68 | %7 | %0 | %25 |
| Zaintza- eta segurtasun-langileak | %88 | %13 | %0 | %0 |
| Bestelako langileak | %87 | %0 | %0 | %13 |

Administrazioko langileek eta zaintzako eta segurtasuneko langileek betetzen dituzten lanpostuak dira neurririk handienean lan-harreman iraunkorra dutenak, eta horietatik oso hurbil daude mantentze lanetarako langileak eta garbitzaileak eta pertsona espezializatuak. Hau da, bestelako langileak izan ezik, gainerako lanbide-kategoriek orokorrean enplegu iraunkorra dute. Bestalde, aldi baterako kontratazioa ohikoagoa da bi kategoria hauetan: bestelako langileen artean eta mantentze-lanetan eta garbiketan aritzen direnen artean. Ordaindu gabeko enpleguen artean, nabarmentzekoa da Zuzendaritzari lotutako kategoria.

## 5.3. LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

Generoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da emakumeek Euskadiko museo-erakundeen plantilla osoan duten presentzia (%59), gizonen %41aren aldean. Aipatu behar da, 2016ko datuekin alderatuz, desberdintasun hori gutxiagotzen doala (%62 vs. %38). Hau da 2016an gizonezkoak baino %24 emakumezko gehiago zeuden, 2018an %18.

55. Irudia: **Museo eta bildumetako langileen banaketa, sexuaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Lanbide-kategoriak generoaren arabera aztertuta, zenbait berezitasun ikusten dira. Langile espezializatuen eta, batez ere, administrazioko langileen kategoriaren barruan, nabarmentzekoa da emakumeen presentzia handiagoa (%71 eta %63); baita bestelako langileen kasuan ere (%63). Hala ere, mantentze-langile eta garbitzaileentzat, eta zaintza eta segurtasun langileentzat, gizonezkoak dira nagusi, intentsitate txikiagoarekin bada ere. Nabarmentzekoa da, hala ere, eta 2016ko datuekin alderatuz, zuzendaritzako langileen artean emakumezkoen presentzia igo egin dela eta gizonezkoak baino gehiago direla (%56,5 eta %43,5).

56. Irudia: **Museo eta bildumei atxikitako langileak, sexuaren arabera eta horien lanbide-kategoriaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

## 5.4. LANALDI MOTA

Euskadiko museoen eta bildumen enpleguan nagusi da lanaldi osoa (%60) lanaldi partzialaren aldean (%40).

57. Irudia: **Museo eta bildumetara atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Museo eta bildumetan lan egiten dutenen artean nolabait desberdintasunak nabari dira, lanbide-kategoriaren arabera. Zaintza- eta segurtasun-arloetako langile ia guztiak lanaldi osoz aritzen dira. Halaber, garrantzitsua da zuzendaritzako langileek, langile espezializatuek eta administrazioko langileek lanaldi osoan duten kontratazioaren ehunekoa.

Lanaldi partzialeko dedikazioa bestelako langileen artean eta mantentze-lanetan eta garbiketan aritzen direnen artean ikusten da batez ere.

58. Irudia: **Museo eta bildumei atxikitako langileak, lanaldi-motaren eta lanbide-kategoriaren arabera** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Jarraian Euskadiko museoen eta bildumen finantza-informazioari buruzko azterketa laburra egingo da; zehazki, finantzazioa eta diru-sarrerak aztertuko dira.

Euskadiko museoen %64k zenbait finantziazio-iturri dituzte: diru-sarrera propioak, sektore publikoko diru-sarrerak eta ekarpen pribatuak. 2016ko datuekin alderatuta, asko jaitsi da portzentaje hau, non %90k zuten bi finantziazio-iturri edo gehiago, baina kontuan izan behar da erakundeen %23k ez duela erantzun diru-sarrerei buruzko atala.

Erantzun dutenak kontuan hartuta, diru-sarrera propioak dituzten Euskadiko museo-sareko 39 zentroetatik %100ak jasotzen dituzte sektore publikoko dirulaguntzak. Aldiz, bide bakarretik finantzatzen diren museo eta bildumen artean, hau da, erakundeen %13a, gehienak sektore publikokoak dira: zortzitik zazpi sektore publikoko diruarekin bakarrik finantzatzen dira, eta bakarra ekarpen pribatuekin soilik.

59. Irudia: **Museoen eta bildumen finantzazio-iturriak** (%) 2018




Oinarria: 61 museo eta bilduma.

Sektore publikoko dirulaguntzak lau erakundetatik jasotzen dituzte: Europar Batasuna, Estatuko Administrazio Orokorra, Eusko Jaurlaritza eta tokiko administrazioa. Laguntza publikoak jasotzen dutela adierazi duten 46 museo eta bildumentzako diru-iturri nagusiena tokiko administrazioak dira, alegia, udalak eta aldundiak: %80k (37 museo ta bilduma) jasotzen dute erakunde horietatik dirua. Ondoren dator Eusko Jaurlaritza, diru-sarrera publikoen %54arekin (25). Oso gutxi dira, ostera, Europar Batasunetik edo Estatuko Administrazio Orokorretik dirua jasotzen dutenak: %15 (7) eta %9 (4).

60. Irudia: **Finantziazio publikoa duten museo eta bildumak dirua ematen duten erakundearen arabera** (%) 2018




Oinarria: 46 museo eta bilduma.

Museoek eta bildumek diru-sarrerak bi iturri nagusitik sortzen dituzte: bisitariei sarrerak salduz eta bestelako diru-sarreren bitartez. Bigarrenen artean nabarmenduko genuke, besteak beste, gelen edo eremuen alokairua, edo/eta denda propioetan produktuen salmenta.

61. Irudia: **Museoek eta bildumek sortutako diru-sarrerak** (%) 2018




Oinarria: 39 museo eta bilduma.

# MUSEO-FUNTSAK

7

Kapitulu honetan aztertzen dira Euskadiko museoen eta bildumen funtsak 2018an.

Euskadiko funtsetan, guztira, 873.138 unitate zenbatu dira, 2016an baino 22.000 pieza gutxiago. Hala ere, kontuan izan behar da, galdetegia erantzun duten 61 erakundetatik 7k funtsen atala hutsik utzi dutela, eta, beraz, oinarria 54 museo eta bilduma direla.

7. Taula: **Museo-funtsak, gaiaren arabera sailkatuta** (%) 2018

| Tipologia | Funtsak % |
|---|---|
| Museo-Etxea | 0 |
| Etnografia eta Antropologia | 0,1 |
| Arkeologikoa | 0,2 |
| Tokikoa | 0,3 |
| Arte Garaikidea | 0,3 |
| Historikoa | 3,3 |
| Arte Ederrak | 3,3 |
| Zientzia eta Teknologia | 3,8 |
| Bestelakoak | 4,9 |
| Espezializatua | 5,8 |
| Orokorra | 7,7 |
| Natur zientziak eta Historia Unibertsala | 70,2 |

Oinarria: 54 museo eta bilduma.

Kontabilizatutako funtsen guztitik %70 natura zientzien eta historia unibertsalen museoetan dago. Horrez gain, funts gehienak gai orokorretako museoetan (%7,7) eta espezializatuetan (%5,8) kokatzen dira. Antzeko egoeran daude zientzia eta teknologia, arte ederren eta historiako museoak, guztiak %3 inguru. Adierazgarria da, izan ere, natura zientzietako museoak Euskadiko museoen %6,6 bakarrik direlako, espezializatuekin (%23) eta zientzia eta teknologiakoekin (%15) alderatzen baditugu behintzat.

62. Irudia: **Museo-funtsak, museo edo/eta bildumaren tipologiaren arabera**
(%) 2018




Oinarria: 54 museo eta bilduma.

Erakundeen artean, %24k funtsen %25 baino gutxiago du ikusgai, eta %17k funtsen %75etik gora. Aipatu behar da erakusketa tokietan funtsen portzentaje handiena duten museo eta bildumak, objektu gutxien dituztenak ere badirela. Alegia, bildumaren %100 ikusgai duten erakundeen funtsak Euskadiko museoen funts guztien % 0,3 (2.656) besterik ez da. Bilduma handiena duen erakundeak, Arabako Natur Zientzien Museoak, bere funtsen %1 du ikusgai, hau da, 5.622 pieza.

# 2018ko ADIERAZLE NAGUSIAK



- Museoen erroldan agertzen diren 63etatik, 61 museo eta bildumek hartu dute parte 2018ko estatistika-txostenean, beraz, ia %98ko parte-hartzea egon da.

- Gipuzkoa da museo-eskaintzarik handiena duen lurraldea. Museoen eta bildumen %48 dago han. Bizkaian %35 dago, eta azkenik, Araban %16. Hala ere, museo gehien dituen lurralde historikoa da gehien sakabanatuta dituena: 33 museo-azpiegitura daude Gipuzkoako 22 udalerritan. Kontrako joera Araban, hamar museotik zazpi hiriburuan daude.

- Museo eta bilduma espezializatuak Euskadiko museo eskaintzaren %23 dira gutxi gorabehera. Nabarmentzekoak dira zientzia eta teknologiari buruzkoak (%15), eta baita arte ederretakoak ere (%10).

- Museo eta bilduma gehienak titulartasun publikokoak dira (%59), batez ere toki-administrazioarenak (%91). Euskadiko museo-sarearen heren bat titulartasun pribatukoa da, gehienbat fundazioena (%50), eta horien patronatuetan erakunde publikoek eta pribatuek hartzen dute parte.

- Kudeaketa batik bat erakunde pribatuek egiten dute (%48), eta fundazioak nabarmentzen dira erakunde kudeatzaile pribatu gisa (%48). Erakunde kudeatzaile publikoen esku biltzen da museo-sarearen %41.

- Euskadiko museo-sektorearen zati handi bat 1951 eta 2000 urteen artean sortutakoak dira (49%), 2001 urtetik aurrera sortutakoak, berriz, %34. Batez besteko antzinatasuna 28 urtekoa da.

- Zerbitzu eta ekipamendu mota ugari daude kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Euskadiko museo eta bilduma gehienek euren zerbitzuen artean erakusketa iraunkorrei buruzko informazioa daukate (%98,4); era berean, ia-ia museo-erakunde guztiek (%96,7) bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte. Zerbitzuko ekipamenduei dagokienez, batez ere aretoko informazio orientatzailea (panelak eta abar) eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako sarbideari buruzko informazioa dago eskuragarri.

- Museo-erakundeen ia hiru laurdenek sartzeko tarifa dute. Beste era batera esanda, %27 dira doan. Hala ere, ohikoa da talde jakin batzuei (taldeak, ikasleak eta adinekoak) tarifa murriztuak aplikatzea, bai eta doako tarifak ere (haurrak, batik bat).

- Euskal museoetan 3.175.103 bisitari egon dira, 2016an baino %6 gehiago, eta bisitari atzerritarrak ugari izan dira (%40, 2016an baino %5 gehiago). Bizkaia da bisitarien kopururik handiena biltzen duen lurralde historikoa. Museo eta bilduma gehienetan (ia %87) beste herrialde batzuetako bisitariak egon dira, eta atzerritar bisitariak guztira 1.274.632 lagun izan direla kalkulatzen da.

- Euskadiko museo-sareak egindako jarduera garrantzitsuetako batzuk aldi baterako erakusketak, hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerak eta argitalpenak izan dira. Hamar erakundetik zazpikk 2018an aldi baterako erakusketak egin ditu. Beste alde batetik, %70ek baino gehiagok argitalpenak egin ditu eta hezkuntza-jarduerak egiten ditu taldeentzat, baita ikastaroak, tailerrak edo mintegiak ere, euren museo-jarduera bera osatzeko.

